


ttipi-ttapa

1991.eko Azaroak 21

74. zenbakia

dohain banatzen da




**SOLDADUSKA,
urteroko kontua**

ARGIA

Azaroaren 28an, Lesakan izango gara
ARGIA EGUNA 91 ospatzen

Mahaietan aurkituko dituzun eskaintza bereziak:



EUSKAL KULTURAREN URTEKARIA 91

- Diseinu berria
- Euskal Kulturaren agenda gaurkotua
- Mahai inguru interesgarriak

HARPIDEDUNEK URTEKARIA MERKEAGO ETA ETXEAN

(Urtekariaren harpidedun ere izan nahi dut)

IZEN DEITURAK

TEL.....

HELBIDEA.....

HERRIA

K.P.....

HERRIALDEA.....

BANKU EDO AURREZKI KUTXA

SUKURTSALA.....

KONTUAREN ZENBAKIA

EGUTEGIA 1992

- Takoan joango da
- Santutegia (euskarazkoa eta bestelakoa), ilargi, itsaso eta eguzkiaren datuak, txistek, errezetak...
- Erosle bakoitzari egutegia zintzilikatzeko taulatxoa oparituko zaio



HARPIDETZA SARIAK (BEZ barne)

HEGO EUSKAL HERRIA
9.750 pezeta
IPAR EUSKAL HERRIA
640 libera
ESTATU ESPAINIARRA
9.750 pezeta
BESTE ATZERRIAK
12.800 pezeta
AIREZ

Industrialdea, 1 eta 2 pabilioiak. 20160 Lasarte-Oria.

non - zer

-
- 4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7 HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8 IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/25 HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
-
- 26 ERREPORTAIA:** "EAEan eta Nafarroan intsumisio kopuruak altuak badira ere, gure eskualdean ez da gauza bera gertatzen"
Modesto Sansiñena
-
- 28 ELKARRIZKETA:** "Soldaduskaren aintzinean, bide ezberdinak aukeratzen dituzte gaur eguneko gazteek"
Aitor Arozena
-
- 30 KIROLAK:**
Doneztebeko Pilota Eskola
-
- 32 OSASUNA:** "Sendabelarrak: Berbena belarra"
Alberto Iturbe
-
- 33 ARO BERRIAREN ATARIAN:** "Bi bertsolarien karta astralak" Fermin Alzuguren
-
- 34 MERKATU TTIKIA**
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 4.700 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txopereña, Pello Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Jon, Arantxa, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton Erkizia, Patxi Petrirena, Olhain Elkarte, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldua Argazkiak, Mattari, Fermin Alzuguren eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza....

Inprimategia: Jomisa (Irun)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa 088

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza510248/510573

KONTSULTAK

Arizkun453039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren450183

Sunbilla450283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614600

Nafarroako ospitalea102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia109400

Gurutze Gorria226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450342

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943)464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzarain515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630261

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

W Botikak

► **Azaroaren 23-24ean**, Bera, Sunbilla eta F. Iturralde (Elizondo).

► **Azaroaren 30-Abenduaren 1ean** Arantza, Doneztebe, Ituren eta F. Lezaun (Elizondo).

► **Abenduaren 3an**, Bera, Ituren eta F. Lezaun (Elizondo).

W Deialdia k

► **Azaroaren 28an**, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Batzorde Erabakikorraren bilera.

► **IGANTZI**, abenduaren 2an, arratsaldeko 7etan, Igantziko Euskara Batzordearen bilera.

W Feriak

► **LESAKA**, Azaroaren 27-28an.

Asteazkenean (27), arratsaldean pilota partidoak, ajoarriero lehiaketa eta hitzaldia. 8,30etatik aintzineraren Lesakako trikitixa.

Ortzegunean (28), goizean abereen feriak, aizkolariak eta bertsolariak Plaza Zaharrean. Arratsaldean pilota partidak eta musika Egan taldearekin.

W Ikastaroak**► ELIZONDO**

BIDEOA,

ARGAZKIGINTZA

ETA ZERAMIKA

Apuntatzeko epea zabalik dago eta azaroako hilabete osoan zehar apuntatu ahal izanen da Baztango Balleko Etxean.

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 580006 telefonora eta galdetu Ana Larruy, Udal Kultur Zerbitzuko arduradunaz.

W Bota bertsoa**Maria DE RUEDA****Gaia:** TTIPI - TTAPA**Neurria:** Zortziko Haundia

TTIPI - TTAPatik eskatu dute bertso batzu idazteko eskutan hartu aldizkaria ta hauxe gaitzat hartzeko nik eskatzen dut laguntzatxo bat aintzinerara jarraitzeko geroan ere ingurutako berriak irakurtzeko.

Aldizkari hau etxe guzitan daukagu guk zabaldua zati ugari aurkitzen dira aipatuaz ingurua harremanak ta sukaldaritzan musika eta bertsoa eskualde hau honeri esker aurkitzen dugu lotua.

AGENDA

Zinema

▶ DONEZTEBE

Azaroaren 23-24ean, "Como ser mujer y no morir en el intento".

Azaroaren 30 eta Abenduaren 1ean, "Linea Mortal".

Abenduaren 3an, "Karate Kid III".

▶ LEITZA

Azaroaren 22an, "Bailando con lobos".

Azaroaren 24ean "Roger Rabbit".

Azaroaren 29an, "Cyrano de Bergerac".

Abenduaren 1ean "Mira quien habla" eta "Cyrano de Bergerac".

Abenduaren 3an, "Robin Hood".

Gaupasak

▶ **LESAKA**, azaroaren 29an, Gau-pasa MINXORIAK taldearekin Matxinbeltzenea Euskal Etxearen alde.

Gastronomia

ONDDO BELTZAK ETA AHATE ERROTEN ENTSALADA

Osagaiak

4 lagunendako:

Eskarola bat, esntsaladarako tomate bat, 200 gr. onddo, 8 ahate errota konfitatuak eta jerez ozpina.



Elixabete Badiolak emana
DONAMARIAKO BENTA

Plater baten inguruan eskarolaren barrengo alde-

ren hosto zatitxoak eta tomatea dadotan azala eta haziak kendu ondoren paratu.

Onddoak tipula pixka bate-tan salteatu eta baztertu. Errotak dadotan prestatuak bere grasan salteatu zartagi batetan. Egina dagoe-nean onddoekin nahasi, ozpin tanta batzuk bota eta plateraren erdian paratu, gainetik perrexila txiki txiki eginda botatzen diogu eta zerbitzatu.

Baserriko feria

▶ ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 4.800 pzta. **Zerri gizona** (95-100):145 pzta/kilo **Urdamak**: 60-80 pzta./kilo bizirik.

▶ BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
Extra.....560
1.koa.....520
2.koa.....480

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal
Extra.....570
1.koa.....530
2.koa.....490
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 340 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 390/400 Pzta./Kg. Ka-

nal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 15.000

eta idixkoak 26.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 27.000

eta idixkoak 40.000 pzta

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.
FUNERARIA ZERBITZUAK

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPAK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

✳ Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxoaz garbitu nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz!

BERA
DESINFECCIONES

Tfnoa: (948) 63 01 55

- BERA

D
Diversey

Europako lehena
ostalaritzarako
garbiketa produktuetan

Tfnoa: (948) 63 01 55 **BERA**



M^a Carmen Ferrero
Lesakako okina

- ▶ **Ogia, gatzarekin ala gatzarik gabe?** Gatzarekin.
- ▶ **Ogi integrala ala bertzelakoa?** Biak, osasunaren arabera.
- ▶ **Ogia, dendetan banatu ala okindegan saldu?** Bietara egiten dugu.
- ▶ **Igandetan, lana ala besta?** Besta egun bat astero ona da, baina lanbide honetan ezin da.
- ▶ **Feriak ala Sanferminak?** Feriak
- ▶ **Ferietan, aziendak ikusi ala erropak erosi?** Aziendak ikusi.
- ▶ **Ferietan, etxean bazkaldu ala restaurantean?** Restaurantean.
- ▶ **Iñauteritan, indioz ala bakeroz?** Ongi pasatuz gero, edozein.
- ▶ **Permanentea ala melena?** Negurako permanentea.
- ▶ **Betaurrekoak ala lentillak?** Betaurrekoak.
- ▶ **Benito Lertxundi ala Mikel Laboa?** Benito Lertxundi.

▶ **Beldurrik ez** Matraka Euskalerrria 1991

«Belladona», Euskalerrriko talde historikoetariko bat desegin zenetik, bide ezberdinak jarraitu dituzte hura osatzen zuten neskek. Alde batetik, Aurora Beltran abeslariak, «Tahuren Zurdos» sortu zuen, izugarritzko arrakasta lortu duen taldea, bere musika berezia eta ahots ederrari esker.

Bertze partaideek berriz, «Matraka» taldea sortu zuten, ez aintzinakoak bezain ezagunak, agian, hain musika komertziala egiten ez dutelako.



Janis, Puri eta Marga, «Matraka» taldeko partaideak

Hasieran, lau neskek osatzen bazuten ere taldea (horrela grabatu zuten «*Beldurrik ez*» diska hau), gaur egun hiru neskek eta mutil batek osatzen dute «Matraka».

«*Gure sakaketa*» beraien lehenbiziko diskoarekin parekatuz gero, zenbait aldaketa garran-

tzitsu somatu daitezke.

Lehenik, azken lan honek erritmo motelagoak ditu, sentimenduak gehiago adieraziz eta baladei leku haundia emanez (gustora gelditu dira Oihuka disketxean lortutako soinurekin). Bertze aldaketa garrantzitsua hizkuntzaren

erabilera izan da, lehen diskoan gaztelera hutsa erabiltzen zen bitartean, oraingo honetan, 10 abestietatik 5 euskaraz bait dira. Pixkanaka, abesti guztiak euskaraz egiteko asmoa azaldu dute, nahiz eta laupartaideetatik bakar batek dabilen euskaraz.

AITOR



AFRO REGGAE ZOUK

ZAGIT

Taberna. JARAUTA, 98.
IRUÑEA. Tfnoa: 22 14 40

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA



Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42
LESAKA

LUR APAL MEKANOTERAPIA ZENTROA

**BIZKARRA
ARTRITISA
ZAINAK
STRESA**

Plaza Zaharra 7, Tfnoa:
637011 LESAKA



JOXEMANUELI

Javier Markotegi, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura kontseilariak, Arellano, Zuzendari Orokorrearekin batera eskualdeko zenbait ikastetxe bisitatu zituen Azaroaren 13an. Doneztebe eta Berako eskoletan, Berako Lanbide Heziketa institutoan eta Lesaka eta Berako ikastoletan bildu zen irakasleekin, "mapa escolar" delakoa aztertu eta REM ikastetxeen kokapena argitu asmoz.



KARMELE

Matxinbeltzenea Euskal etxearen inaugurazio burutuko da Azaroaren 24ean. Eguerdian luntxa eta zenbait talderen ikuskizuna izanen da, bertara Administrazio eta euskal kulturako jendea eta elkarte ezberdinak gonbidatuak daudelarik.



Etxean laguntzeko zerbitzua martxan Leitzan eta Goizuetan

Zonaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren barranean dagoen Etxean laguntzeko zerbitzua azaroan jarriko da martxan. Zerbitzu honen bidez, orain arte irtenbiderik ez zuten kasuei erantzuna eman nahirik. Hemen sartzen dira bere egoera fisiko/psikikoa dela eta beren buruak gobernatzeko gai ez diren pertsonak, laguntzeko inorez dutenak eta egoera ekonomiko kaxkarrean aurkitzen direnak. Horre-

la, etxean bizitzen jarrai dezakete. Zerbitzu hau Nafarroako gobernuak eta zonaldeko Udalek subentzionatzen dute, eta famili bakoitzaren ahalmenaren arabera ere, baremo tiki bat ezartzen da.

Zerbitzuaz baliatzeko, zonaldeko Gizarte langilearekin jarri behar da harremanetan, astelehen, astearte edo ostegunetan Leitzeko Osasun Etxean (610617) eta asteazkenean Goizuetako Udaletxean (514006).

INFORMAZIOA:

- 📎 Nominak
- 📎 Aseguro Sozialak
- 📎 Lan-kontratu bonifikatuak
- 📎 Enpresa berrien sortzea
- 📎 Diru-laguntzak
- 📎 Errenta Deklarazioak
- 📎 Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



HANKA SARTUAZ IKASI...

Hasteko errango dizuet ni neska gazte bat naizela, eta gehienak bezala hanka sartuaz ikasten ari naiz mundu honetan bizitzea zer den. Lanean ari naiz, baina haurrak zaintzen, eta, asmatzen ahal duzuen bezala ez dut irabazten izugarriko soldata. Horrengatik, "Diario Vasco"n ikusi nuenean iragarki bat diru gehiago irabazteko, saiatu behar nuela pentsatu nuen. Iragarkian erraten zuten Oviedotik bidaltzen zutela kuadroak egiteko materiala, eta eginak itzultzekin ordaintzen zutela

lana. Nik eskatu nuen lote bat, baina izugarriko lana zuten eta gainera bidali nituenean ordaindu gabe itzuli zidaten fiantzakin geldituz. Haien aitzakia gaizki eginak zeudela eta nere ustez ez zeuden hain gaizki. Eta eskuz eginak izateko, guttiago. Ba, ikusten duzuen bezala azkenean gelditu nintzen paratutako fiantza gabe eta kuadro pila batekin etxean. A ze timoa! Eta ni zozoa bezala erori. Baina ez ni bakarrik ikusten dudanez, egunkarian oraindik agertzen baita iragarki hori. Eta ez balute inor engainatuko, ez luteke gehiago aterako. Hala ere, nere

lana zerbaiteko balio behar zuela eta Doneztebeko eskolako ikasleen eskutan utzi ditut. Haiek saldu dituzte ferian, bidaia egiteko!



M. I.

EUSKERA DISKRIMINATUA

Ohar honen bidez, Lekarotzeko Baztan harana batxilergo ikastetxeko euskal adarreko ikasle talde batek, ikastetxe honetan euskerak jasaten duen diskriminazioa salatu nahi du.

D ereduan matrikulaturik gauden ikasleen artean

(ikasgai guztiak euskeraz emateko), laurdenak baino gutxiago ematen ditu bere ikasketak bere kopuruan euskeraz. Gure arazoa, etika, informatika, ingelese eta erlijioiko ikasgaiak ziren hasieran. Gainera ikasgai hauek emateko, erlijioa ez, hilabete bat pasa genuen irakaslerik gabe.

Bozketa batzuen ondoren, gaztekeraz ematen ziren klaseetara ez azaltzea erabaki genuen, gure ez adostasuna erakutsiz. Gure mugimenduak zirela medio, zuzendaritzak 2. eta 3. mailtarako etikako euskal irakasleak jarri zizkiguten, zientzietako bi ira-

kasle. Zuzendaritzatik adierazi ziguten, arazoa Nafarroako Gobernuan ez zegoela, erlijioiko irakasleak artzapezpikategitik bidaltzen zituztela. Hauengana eskutitz bat bidali genuen, oraindik erantzunik jaso ez dugularik, esperantza galdu ez arren.

Gure eskualdeko ikuskariarekin bildu ginen eta biltzar luze baten ondoren, arazoak era berean darrari. Beraz, zer egin behar dugu gure ikasketak euskeraz emateko? Non daude gure eskubideak? Noiz arte jasan behar dugu Nafarroako gobernuak euskarekin duen arazoa?

Lekarotz, 1991ko Azaroan

Ostatu

Jatetxea



- Eguneko menuak
- Kazuelak eta pintxoak

BETI - JAI

Askain 1, Tfnoa: 63 08 10 - BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

SEKULAKO AUKERA PREZIO ETA KALITATEAN


Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA



EUSKALDUNA JATETXEA

Tfnoa.: 63 03 92
BERA

SAROBEn okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



MUSIKA DENDA
BERA ☎ 631059

- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

Behobiarainoko errepidea zabaltzeko estudio orokorra egiten ari da Iruñeko Gobernuak

ROMAN HARRIBILAGA

Hiru hilabete inguruko epe barru ezaguteraziko omen du Nafarroako Gobernuak Iruñea-Behobia lotzen dituen errepide ardatzan hobekuntza lanak gauzatzeko burutzen ari duen estudio orokorraren edukina, Herrilan, Garraio eta Errepideetarako sailburuak azaroaren 5ean Berara egindako bisitan adierazi zuenez.

Hobekuntza lau fasetan burutuko da, Belateko eta Bera-Behobia errepide tartea daudelarik barrenean. Egiteko dagoen proiektuaren arabera, oraingo errepidea zabaldu edo karril gehiagoz hornituko litzateke. Horretarako, Irungo Udala, Gipuzkoako Diputazioa eta Ipar Euskal Herriko erakundeekin akordio batzutara iritsi beharko litzatekeelarik



Jokin Telleriak lortu zuen Margo leihaketa lehena saria

errepidea pasatzeko beharrezko lurrak lortzeko.

Herriko errepideak

Aldi berean, Arkaitza harrobi ondoko saihebidetako sarrera, Berako herriguneko zeharbidearen egoera txarra, Ibardingo merkataldegirako sarbidea, Lizuniagako errepidea eta Altzateko saihebidetako soluzioak azkar ditzan es-

katu zion sailburuari Udalak, beren finantzaketa eta mantentzearekin batera.

Telleriarentzat margo leihaketa

Beasaingo Jokin Telleriak irabazi zuen azaroaren 10ean egindako IX. Margo Leihaketa kanpoan, 60.000 ppta. ko lehen saria eramanen. Carlos Gaudilio Lekeitiarrantzat izan zen bigarrena eta Elorrioko

Begoña Garaizabalentzat hirugarrena, 35 margolariaren artean.

15 gazte zozketatuak

Soldadutza egiteko 15 gazte beratarak zozketatuak izan dira. Hala ere, Urriaren 31an, Berako Lanbide eskolako eta Lekeitoritzko Institutoko 60 ikaslek manifestaldia egin zuten soldadutzaren aurka.

Proiektu berria Ikastolan

Azaroaren 21ean, Labiaga ikastolako Biltzar Nagusiak 2 eta 6 urte arteko haurrentzat idatzi duen proiektua aurkeztuko die bazkidee. Helburua, REMA ezartzea da, Derrigorrezko Hezkuntzako 2. mailako ikasleak oraingo ikastetxean kokatuz. Bertalalde, Agustin Burlada Etxebeste hautatu dute zuzendari berri bezala.

IKOR KOTX

B RADIO BIDASOA



expert

RADIO BIDASOAK errex jartzen dizkizu gauzak:

- * Zure elektrogailua, TB, bideoa, etab, aukeratzeko laguntzen zaitugu.
- * Dohainik instalatu eta erabiltzen erakutsiko dizuegu.
- * 3 urtetarako garrantia.
- * Sute eta lapurretaren aurkako aseguruua.
- * 36 hilabete bitarte dituzu ordaintzeko.

Kanttonberri 1, Tfnoa: 630377 - BERA

ZALAIN JATETXEA

EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06

BERA

MANUEL LANTZ

KONTABILITATEA ETA AHOLKULARITZA FISKALA

Errenta deklarazioak, BEZ edo IVA deklarazioak, Kontabilitateak, e.a.

Eztegara 14, 1. - Tfnoa.: 63 11 08 - BERA

LESAKA

Bortzirietako feriak, Azaroaren 27 eta 28an ospatuko dira

Aurtengoan, ohizko egitarauaz gain zenbait ekintza antolatu dira

AITOR AROZENA

Azaroaren 27an eta 28an burutuko dira Nafarroako erregeengandik 1.499. urtean eskuratutako Bortzirietako feriak, aurtengoan ohizko egitarauaz gain, zenbait ekintza antolatuz.

Merkatu Eguna

Asteazkenean (hilak 27) merkatu

eguna ospatuko da, arratsaldeko 5,30etan herriko pilotarien arteko pilota partidekin hasiko delarik. Arratsaldeko 7etan herriko-etxeako arkupetan eta Beti Gazte elkarteak antolatuturik Ajoarriero txapelketa.

7,30etan, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Abeltzantza eta Arrantzarako sailburua den Jose Manuel Goikoetxearekin hitzaldia eta arratsaldeko 8,30etatik gaueko 10ak arte, Lesakako trikitixa.



«Matxinbeltzenea» Euskal Etxea inauguratuko da hilaren 24ean. Egitarauaren xehetasunen berri, "Hontaz eta hartaz" sailean

Feria Eguna

Ortzegunean berriz, abereen ohizko feriak izanen dira goizez Plaza Zaharrean, Larretxea eta Mindegia aizkolariak eta Euskitze eta Egaña bertolariekin batera. Eguerdiko 1,30ak aldera banatuko dira sari berexiak abereen jabeei. 5,30etan, lehen mailako afizionatuen arteko pilota partidoak jo-

katuko dira. Arratseko 7,30etan hasita, musika Egan taldearekin.

Aziendei dagokienez, aurreko urteetako baldintzak bete beharko dituzte. Sariak berriz, ez dute igoerarik izanen iazkoekin konparatuz. Lehen sariak, 30.000 pzta. betaberetan, 12.000 bigaieran, 20.000 zaltaberetan eta 5.000 ahareetan izanen dira.

ttipi-flash

Autodeterminazio eskubidearen alde Eusko Jaurlaritzak egindako deklarazioarekin bat egin zuen Udalak, PNV alderdiko aldeko botoekin eta EA eta HBren abstentzioarekin. Aintzinetik, Bermeoko Udaletik igorritako independentziaren aldeko idatzia ez zen onartu.

287 milioetakoa izanen da 1992 urterako udal aurrekontua.

Euskalerrriak orokorki eta Bidasoan bailarak jasaten duen egoera ekonomikoaz kezkatua agertu zen Udala.

Astehenero kenduko omen dira lizentziarik ez duten pankarta eta kartelak.

Beti Gazte elkarteak ez ohizko asanblada burutuko du hilaren 22an, egoitzan egin behar diren berritze lanak aztertzeko.

ARTXIBOA

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Behoko Plaza 8, LESAKA

XATURETXEA
FONDA
Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

BEKO ERROTA
Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

ONIN
Agentzia
Albistur 53
Tfnoa: 637359
LESAKA

- Aseguruak eta kontabilitatea
- Errenta eta IVA deklarazioak
- Eskrituren likidazioa
- Edozein aferetarako ofizina
- Zunzarren-en kolaboratzaileak

KAMINERO
OSTATUA
Behoko Plaza 1, Tfnoa: 637243 - LESAKA

Ecuador-etik gure baserriak ikustera

Azinda lanak hemen nola egiten diren ikusten egon dira Lakatenekobordan

PELLO APEZETXEA

Azinda lanak hemen nola egiten diren ikusi nahirik, Ameriketako Ekueadorretik etorri dira Juan Arebalo eta Juan Bautista, Lakateneko Bordan aste osoa horretan aritu direlarik. «Quichua» izeneko Herriedo Naziokoak, 3.000 metrotako altueran dagoen eremuan bizi dira,azienda bakar batzuz baliatuz.

Gurekin konparatuz, eta gauza materialei dagokienez, nahikoa behartsuak dira, agintariak erabat baztertutik dauzkatela. Baztertutik, bizimodua hobetzeko ez baitie laguntzen, ezta beren hizkuntza eta kultura errespetatzen ere. Horregatik, preziski, «Ecuarinari» elkarteak bilduta ari dira bizimodua eta Herri eskubideak zaindu nahiz, eta Elkarte horren izenean etorri dira,



Arbolak biluzirik, baina oraindik Sanmartiñetara ailegatzekoak. Ez dira biluztu, biluztu egin dituzte. Udazkena laburtu eta neguan sartu nahi?

Euskal Herriko «Askapena» Elkarteak lagunduz. Gasteizen, Errezilen eta Bergaran egonik, Etxalar-tik Iruñe ingurura doaz azken egunak egitera.

Iduri duenez, beraientzat berriak eta ezezagunak diren gauza franko ikusi dute, batzuk probexgarriak izan dakizkienak.

Auto abandonatuak karriketarik kendu

Bazterretan aspalditik «abandonatu» itxuran zeuden auto zaharrak jasotzea agindu du Udalak, banaz bertze hain polita dagoen herria apaintzen ez zutelako. Badirudi jabeek haintzat hartu dutela errana, urteetan leku berean zeudenak desagertu baitira.

Ahuntzak menditan

Nahiz eta debekatua izan, herri lurretan sortzen dituzten kalteengatik, oraindik ba omen dabilta ahuntzak. Bildu ditzaten eman du bandoa Udalak, erabaki bereziren bat hartuko duelakoan, bertzela.

Ibai eta errekek garbitu beharra

Bortzirietako Osasun Kontseiluak, ibai eta erreken egoera lotsagarriaz ohar daitezen deialdia egin dio Zabor edo Hondakinen Mankomunitateari. Zikina baino zikinago daudela, alegia, eta aldizkako garbiketarako gomendatuz. Itxura txarra duelako arrazoia eman du Kontseiluak. Arrazoi gehiago ere eman daitezke, noski, eginkizun horretarako. Errekaren garbitasunak inguru eta jendearen osasunarekin baitu zerikusirik. Erantzuna Udalen esku dago.

ARRANO



OSTATUA

Legarra - LESAKA

KOXXKONTA



Sagardotegia

Erretegia

Ezkontza,
bataio, bileratarako
leku egokia
(200 pertsona)

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hoberena

**Frexkuena
zugandik
hurbilago**

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

IGANTZI

Papelera, Rosa Martinez eta artzaiak akordio batera iritsi

Oihanberriko zatirik altuena itxi gabe mantenduko da

OSKAR TXOPERENA

Urriaren 21ean egin-dako bileran, Papelera eta Rosa Martinezen ordezkariak alde batetik eta artzaiak bertzetik, ados jarri ziren, Oihanberri mendiaren erabileraz.

Asuntua da artzaiak ez dutela onartzen Oihanberriko mendi guztia batera itxitzea, aspaldidanik ardiak bertan bazkatzeko eskubidea dutelako. Akordioa, luze luze eztabaidatu ondotik lortu ahal izan zen, bertan alkateak ere parte hartu zuelarik.

Hauxe da akordioa gutti gora behera:

Oihanberri mendiko zatirik altuena, hau da, Abeluko bordatik hasi eta



Zonaldeko egoera ekonomikoa kezkarria da Udalarentzat

alanbre zaharraz inguruta dagoen terrena, momentuz itxi gabe uztea, ardiak bertan ibili daitezten. Terreno hau itxi ahal izateko orain plantatuta dagoen zatiaren alanbrea kendu egin beharko da, ardiak

beti nonbait ibiltzeko lekua eduki ahal izateko.

Egoera ekonomikoa kezkarria

Igantzi udalean ere, eztabaidatu ziren egoera ekonomikoa kezkarriaz bai Lesakako komiteak eta

bai Berako Udalak bidalitako idatziak. Bertan esijitzen da langileen eskubideak kontutan har daitezela eta irtenbide positiboa eman diezaiotela Euskalerrriko industriaren krisialdiari.

Kontserbatorioaz

Ez dira Udalekoek Berako Udalarekin ados jarren kontserbatorioko presupuestoaren banaketaz. Aintzinako udal batzarrean ezezko borobila eman bazieten, oraingoan Etxalar eta Arantzakoekin biltzea erabaki dute gai honetaz mintzatzeko.

Giro ederrean pasatu ziren Euskeraren egunak, jendearen parte hartze politarekin.

EKAITZA OSTATUA

Altzate - BERA

GOZOTEGI - JAIZONE



Itzea 3, 630786 - BERA

BOTXO ostatua

Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA

BORTZIRI

Itzea 4, behea - BERA
Tfnoa: 63 10 91

- * Asistentzia teknikoaren zerbitzua
- * TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
- * Bakarkako, kolektibo edota satelite bidezko antenak ere paratzen ditugu

MOBLEAK METS

Bidasoa 45, Tfnoa: 63 05 37 - BERA

SUKALDEAK
LOGELAK
EGONGELAK

Deitu eta neurtzera joanen gara.
Konpromisorik gabe!!

GRUPO ZURICH



ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63


Pistak enbreatzeko laguntza izanen da azkenean

Juan Miguel, Xabier eta Vicente, Sanz lehendakari-ordearekin bildu ziren

JON LARRETxea

Azkeneko Hirurteko Plana edo "Plan Trienal" delakoa zela eta, Arantzako udalak hiru atal haundi agertu zizkion Nafarroako Gobernuari: auzoetako pistak enbreatzea, herriko uren saneamendua eta karriken pabimentazioa. Nafarroako Gobernuak herri guzietako proiektu guziak bildu eta premiaren arabera sailkatu eta gero, Arantzako obrarik ez zuen sartu, baina, pistak enbreatzearen eskakizuna hortxe hortxe gelditu zen, bertzeak berriz, gibelago.

Geroago, Nafarroako Gobernu berriak, 92rako aurrekontuetan, orduan egin gabe baina hortxe-



Udal ordezkariak Sanz lehendakari ordearekin bildu zen

hortxe gelditu ziren obrak ere sartzea erabaki du, hurrengo hiru urtetarako, bertze plana egingen delarik. Nolanahi ere, oraingoan pistak enbreatzeko aukera izanen dugu.

Udal ordezkariak, Sanz jaunarekin

Juan Miguel, Xabier eta Vicente, Nafarroako Lehendakari ordearen Sanz jaunarekin egon ziren, eta bertan, herriaren egoera eta

premiak azaldu zizkieten. Hoiaren artean, aparkalekua, kanposantua, Iturriozko kurba, San Juan Dermio, uraren municipalizazioa eta holakoak egon ziren.

Arantzako ordezkariak kontent ateri ziren elkarriketatik. San Juan Dermio erosteko laguntza mantendu eta uraren municipalizaziorako ere laguntza izanen zela hitzeman zuen Sanz-ek. Hauek, Hirurteko Planetik kanpo, bertzeak berriz, planaren barnean eskatu beharko liratekeen.

Zuzenketa

Tomasen kartan, Mendaurreko joan etorriari ezetza eman ziona ez zen Tomas izan, Patxi baizik.



HAUR JANTZIAK
OINETAKOAK

ETXERAKO ZAPATILAK

San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

ATERPE
jatexea

Mendi ibilaldietarako Mountain bike bizikletak

alokatzen ditugu

Tfnoa.: 63 41 79 - ARANTZA



Legia 11 - 63 06 64 BERA



SENPER
AUTO-ESKOLA

Egitan gidatzen ikasi nahi baduzu, etorri guregana.
Klase teorikoak eta praktikoak: Goizeko 9etatik 1etara
eta arratsaldeko 4etatik 9etara.

Eztegara Pasealekua 22 - BERA

Tfnoak: 630298 (Bera) eta 637206 (Lesaka)

SARA

Bixente Garzia eta bere senideek aperitifa eskeiniko dute

Azaroaren 23an, laguntzaile eta Sustengu komitean aritu diren guziei

OLHAIN ELKARTEA

Heldu den Azaroaren 23an, arratsaldeko 7etan, Herriko Etxeko edantegian eskainiko dute aperitifa Bixente Garzia eta bere etxeok laguntzaile eta Sustengu Komitean aritu diren guzieri, gartzelan egon den bitartean eskeinutako laguntza eskertzeko asmoarekin.

Denbora berean Fresnes-en dagoen Pello Etxebeste agurtzen dugu, laister gure artean ikusiko dugulako asmoarekin.

**Axuria elkartearen
besta**


Azaroaren 2an, Sarako Itzulian parte hartu zuten

guzien elgarretaratzea iragan zen Portuan. Gogoratu behar da, ekainaren 16an iragan zela hirugarren aldiz Sarako Itzulia, lauhun bat lagun partaidetzarekin.

Molde berezi batez, janari eta edari askoren inguruan, Axuria elkarteok eskerrak bihurtu dituzte ekitaldi horretan izan ziren laguntzaile guzieri.

**Mus lehiaketak
haste...**

Aintzineko Añimainean, gaur egun Akelarre deritzon ostatuan iragan beharra da Mus txapelketa azaroaren 22tik goiti, ortzirale guziz arituko direlarik



Bixente Garzia Eltzegor musika taldeko partaidea dugu

**MANOLO
TABERNA**

Edari Banatzailea

Errefreskoak, Ura,
Ardoak, Likorrak,
Txanpaina

Tfnoa: 63 10 27 - BERA

HERRIKO ETXKO EDANTEGIA

Michel Guerendiaïn

SARA - LAPURDI



trebeki

jostailuak - eskulanak

Sebastian Errazu 1(943) 61 83 97 IRUN

Erakusten dugu:

- ⇒ Makrame
- ⇒ Tridimensional
- ⇒ Saskigintza
- ⇒ Telar
- ⇒ Eskaiola margotu
- ⇒ "miga de pan"

ITXASO JATETXEA

Menua eta Karta

Ibardingo Gaina - BERA

Eskola atariko leherkura ez da oraindik konpondu

Hau moldatzeko, bi miloi inguruko aurrekontua egina dago

PATXI PETRIRENA

Eskola atarian jostetarako lekua egin zenean, azpiko aldetik ormigoizko pareta egin zitzaion, altura haundi samarrean gainera, maldarengatik. Denborarekin, leherkura bat egin da pareta horretan eta ondorioz jostetarako lekua den atarian ere gero eta arraildura haundiagoak egiten ari dira.

Obra honetarako bi milioi inguruko presupuestoa egina da, horretatik %30a herriaren gain eta gainerakoa Diputaziotik, baina oraindik ez da lanak hasteko arrastorik. Zeinen esku dago?



Gero eta leherkura haundiago du paretak
Argazkia: PATXI

Kintoak

Herriko Etxearen abisua da honako hau: "1991n 17 urte bete edo beteko dituztenak (74ean jaiokoak) sekretariatik pasatzen ahal dira alistatzera". Eta ko-

mentarioa nerea da: ez al zuen erabaki Sunbillako Udalak ejerzitoarekin ez kolaboratzea lan horietan, eta gazteei informazioa eskeintzea soldaduskari uko egin nahi bazioten?

Diputazioaren abisua

Karretera bazterrean Diputazioak bota dituen arbola iharren jabeak, egurra hartzera joan daitezke Mugairen Diputazioak duen almagenera.

APEZTEGIA

JOXE HAROTXEN ETXEA

Tfnoa: 45 00 65 - DONEZTEBE



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

JUAN J. PIKABEA

◆ ARROPA KONFEKZIOAK ◆
GIZONEKOENDAKO JOSTUNGITZA

Amezti z/g Tfnoa: 45 01 63

DONEZTEBE

Bere bezero eta lagunei, negurako arropa guztiak bertan dituela jakinarazten die, artikulua aukera zabala egonik:

- Larru, ante eta pañosko kazadorak.
- Lumazko anorakak
- Trajeak
- Amerikanak
- Austriakak
- Galtzak, jertseak eta atorretan eskeintza haundia.

DONEZTEBE

Udal Musika Eskolaren aurrekontua 8 miloi t'erdikoa

1991-92 ikasturterako 7 irakasle kontratatuko dira

TXEMA ALDABE

1991-92 ikasturterako Udal Musika Eskolaren aurrekontua 8.592.187 pezetatakoa izanen da, bai dirusarrera eta bai irteeren aldetik, azken Udal batzarrean erabaki zenez. Honekin batera, 7 irakasleren kontratatzea ere erabaki zen, probetan lortutako puntuazioaren arabera.

Laminaciones-eko langileen alde...

...agertu zen udala ahobatez, hauen sindikal ordezkariak aurkeztutako idatzia irakurri ondoren.

Bertan, «Laminaciones de Lesaka» enpresak gure eskualdean duen garrantzia eta bera desagertuz gero



Azienda ederrak ikusi ahal izan ziren ferietan

emanen zen pobretzea aipatzen zen.

Ordu erdi beranduago...

...itxi ahal izanen dute herriko tabernariak beraien ostatuak besta egunen bez-

peretan.

Langileak euskalduntzen

Malerekako 13 udalen onespenerekin eta Nafar Gobernutik jasotako dirulaguntzarekin, Euskara

Zerbitzuak prestaturiko plangintzan ziren 11 langileak euskara ikastarotan hasi ziren Urrian.

Oteiza auzoko...

...bidearen argia moldatzeko estudioa eta aurrekontua eskatu dio Udalak Gonzalo Fernandezeri

DYA erakundeak...

... eta Nafarroako Herri Kirol Federazioak egoitza berriak izanen dituzte herrian.

Zinea Leku-Eder-en

Azaroaren 23 eta 24ean, "Como ser mujer y no morir en el intento", azaroaren 30 eta abenduaren 1ean, "Linea Mortal" eta abenduaren 3an "Karate Kid III".

KARMELE

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa.: 45 04 91



KAMAMILA DENDA NATURISTA

- * Mediku kontsulta naturista
- * Sauna (ordua eskatuz) eta masajista

Merkado Errepidea, 2. Tfnoa: 451 528 - DONEZTEBE

Nerea Oinetakoak
San Miguel 2, DONEZTEBE



Udazkeneko moda
Estilo propioz
egindako arropak

San Migel auzoa 27,
45 08 83 - DONEZTEBE



ARROPA ETA OPARI DENDA

Tfnoa: 451540
Mercaderes 9
DONEZTEBE



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

Kultur Egunak antolatu dira datorren urte hasierarako

Aurtizko bestak azaroaren 8, 9, 10 eta 11an izan ziren

IBAN ISASI

Bertako HBk antolatu eta herri guztiari begira Kultur Egunak antolatuko dira, datorren urteko Urta-rrilaren 3, 4 eta 5ean. Antolatuko diren ekitaldien artean, diapositiba erakusketa, argazki erakusketa, bertako jendeak egindako antzerkia, Ruper Ordozikaren kantaldi bat, behar bada Kanka rock taldearen kontzertua eta haurrentzako jolasak, besteak beste. Aurrerago, egitarauaren berri zehatzagoa emanen dugu.

Argiteria

Guttinaka guttinaka ar-



Aurtizen umore ederrean igaro zituzten bestak

ARTIBOIA

giaren lanak bukatuz doaz eta honen ezaugarrietako bat, Aurtizko aldetik elizarrainoko bidearen argia funtzionamenduan jartzea da. Gainerako lanak ere bukatuxeak daude.

Aurtizko bestak

Urte bat gehiagoz Aurtizko bestak bukatu egin dira. Egunik jendetsuena larunbata izan zen, baina interesgarriena igandea eta astelehena. Igandean pilo-

ta partiduak izan ziren eta arratsalde eta gauetz dantzaldia. Hurrengo egunean, 11etan hasi zen egitaraua, meza nagusiarekin. Ondoren, aizkol apostua eta honetan, Luis eta Fermin, eta Karmelo eta Antonio ziren bikoteak. Garaileak Luis eta Fermin suertatu ziren.

Ondoren txingetan aritu ziren auzotarrak eta baita sokatiran ere (ezkonduak ezkongabeen aurka). Bertsolariak ere egon ziren, Arantzako Madariaga anaiak. Ondorengo bazkarian, 50 bat lagun elkartu ziren Aurtizko elkartearen antolaturiko bazkarian. Bukatzeko dantzaldia egon zen Joxeangelekin.

ORAIN
79.983
IVA barne

MOD 281 XP

LACAMBRA Tailerra

AUKERA EXISTENTZETARA MUGATUA
Tf: 450082 - DONEZTEBE

ORAIN
69.967
IVA barne

MOD 266 XP

Amaya

Lurrindenda
Oparidenda
Solarium «berria»
Apaindegia

- ✎ Rochas, Loewe, Paco Rabanne, Cacharel eta bertze hainbat kosmetiko eta lurrin **ESKEINTZEN DIZKIZU**.
- ✎ Bitxitegian eta antzekoetan dagoen azkenekoa.
- ✎ Apainketa lanetarako, ordenagailuz zuzendutako teknologiarik aurreratuena daukagu. Modu horretara, zelulitisa, larruazalaren arrailak eta beraztasunak eta zirkulazio arazoak moldatuko dizkizugu.
- ✎ Informazio gehiagorako edo kontsultatzeke: ▼▼▼▼▼

Amezitia karrika Z/G - DONEZTEBE Tfnoa: 450163

ABENDUAN ZABALTZEN DUGU


SALDIAS

Udalbatza berria aukeratua

Ur-tuberiak berritzea da udal berriaren asmoetatik bat

J.M.I.

Ur-tuberiak berritzea eta behar bezala paratzea da hurrengo lau urteotan Saldiasko udalbatza berriak duen asmoetariko bat. Izan ere, oraingo uralitazko tuberia duela berrogei urte inguru jarri zela aipatu zigun Pedro Urrutiak, beste lau urtetarako berriro ere alkate aukeratua izan denak. Pedrok esan zigunez, hori noiz egingen den ez dago oraindik esaterik, aurretik, Nafarroako Gobernuaren Hirurteko Plan-gintza edo "Plan Trienal" delakoan sartu beharko baita proiektua. Nolanahi



Pedro Urrutia, Saldiasko alkatea, Tantaliko errekan ateritako argazkian.

ere, espero den bezala proiektua onartuko bada, tuberia berritzeaz gain

oraingo ur-hartzea hobetu eta herriko ur-sarea ere moldatzeko aprobeztatuko

litzateke, dena batera. Eta ur-kontuekin segituz, gogoratu behar da, berriki, karrketan "boca de riego" delakoak jarri zirela. Obra guzi hauekin, Saldiasen ur-kontuak denboraldi bate-tarako moldatuak geldituko dira.

Udal partaide berriak

Azaroaren 3an bildu-tako botoen arabera, Pedro Urrutia, Sebastian Ezkurra, Jacinto Dominguez, Jose Ramon Etxeberria eta Celestino Mutuberria dira hurrengo lau urtetan, Saldiasko Udal-agintea eramanez dutenak.

URROTZ

Udala independentziaren alde agertu zen

Bertzalde, 15 bat emakume hasi dira EPA ikastaroan

TXEMA URROTZ

Orain dela bi aste Udalak Euskal Herriarendako independentzia eskatzen duen mozioa onartu zuen. Zinegotzi guztiak ahobatez onartu zuten puntu hau eta ez zen botaziorik ere egin behar izan.

Ez dago arruntargi nork aurkeztu zuen mozioa, Udalak ez bait du erabakia publikoki agertu, baina ez bada konfirmatu ere EAKo zinegotziek aurkeztutakoa

izanen da seguraski.

EPA ikastaroa martxan dago

Duela hiru aste guti gora behera hasi zen EPAREN konfekzio ikastaroa, hamabortz bat emakumek daudelarik. Astean hiru egunez izaten dira klaseak, astelehenean, asteartean eta ortziralean, egun bakoitzean bi ordu izaten direlarik (4etatik 6etara). Aipatu beharra dago, irakaslea ere bertakoa dela, honek dituen bentaja guztiakin.



Urrotzko Udala ere independentziaren alde agertu da

“Residentzia” zubitarrez beterik

JUAINAS

Pedroren eritasunak muga bereziren bat altxatu balu bezala, hurrengo astean, Santu Guzien inguruko egun horietan, “Residentzia” zubitarrez beterik omen zegoen: Bixente neumoniarekin, Igor bere hezurak direla eta ez direla —oraingo honetan hankako hezurren bat hautsi duela uste dut—, Mikel eta Ebak, berriz, Barrakilokoak, gartzainondo zahar bati esker ez zuten izan handiagoa, Ebaren lepaluzetasunarekin nahiko! Hori hemen herrian, kanpoan, dagoen lekuan dagoelarik, Xapak Fermintxok hartu omen zuen mina, arbolaren batekin eta ez izugarria, Jaungoikoari esker. Ikusten duzuenez,



eskerrak banatzen ditugu barra-barra. Aritzen denari gertatzen omen zaio!

Besteaintikun ez dut deus handirik jakin. Ondarrean, euskara ikastaroa ez dela gauzatu, gogo gutxi alde batetik eta bestetik, Jaione pelukera hasi dela, guztiei alperkeria

sartu zaie. Beste txanda bat galdua!

Indarra hartzen ari dena sukaldaritzarena da. Falta da, bakarrik, estalpeko sukaldea kondizioetan egotea. Jostunena ez omen da eginen eta berriro indartzen ari dena Ekaitzako mugarena da. Herri Talde-

koek asuntua berrikusteko gogokin dira, aurreko Udalekoek egin zutena nahikoa ez baitzaie iduritzen. Lorpena, bederen, eskasa izan zuen!

Baliteke, baita ere, es-talperako talderen batek elkarte plana Udalera eramatea, han eztabaida deza-tan, baldintzak ikusi eta erabaki. Errandonea itxia segitzen baldin badu ez ninduke harrituko finkatzea, non arraio bildu behar da jendea bestela?

Eta eztabaidaz ari garen ez, Udalean pisten egoerari buruz solastu zen. Arazoak bi bide omen ditu: duguna hobetzea edo duela urte batzu kaleratu ziren usadioaren baldintzak hobetu eta martxan jartzea.

BEINTZA-LABAIEN


Francisco Bertiz alkate berria

Botua ematen ahal zuten 278tik 90ek eman zuten bakarrik

Azaroaren 3an aiuntamentua aukeratzeko egin-dako bozketara 90 herritar hurbildu ziren. Bertzalde, talde bakarra izan zen aurkeztu zena, Herriko Taldea izenarekin, eta ondorioz, zerrenda osatzen zutenak automatikoki, udalbatza berria osatu dute

Modu horretara, alka-

tea eta sei kontzejalak honakook dira: **alkatea:** Francisco Bertiz Erasun; **kontzejalak:** Miguel Saldias Erasun, Bautista Erasun Mindegia, Marcos Telletxea Mutuberria, Marcelino Mariezkurrena Balestena, Jose Gragirena Mutuberria eta Angel Maria Elizondo Etxegia.



Francisco Bertiz alkate berria

Migel Zestau pilotariari, omenaldia Galarretan

Erremonte profesionalean aritzeari utzi egin dio, 22 URTEZ JOKATU ONDOREN!



Migel Zestau bere bi semeekin

ANTTON ERKIZIA

Migel Zestau, Mikel, Migelito leitzarrentzat, pilota profesionala (erremontea) uztera doa, eta Eguberriak aldera omenaldi haundi bat eskeiniko diote "Galarretan".

46 urte dituen leitzar ezagun hau eskuz hasi zen pilotan (GRAVN tornean

txapeldun izana ere, banakakoan). Berehala erremontean hasi zen, eta azken 22 urte hauetan (22 urtez!) erremontista profesionalean ari dela. 2.700 partidu jokatuak ba omen ditu. Gazte eta sasobean sentitzen da hala ere, eta afizionatutan segitzeko asmo eta gogo guztiak dauzka berarekin.

□ **"Bailando con lobos"** pelikula ospetsua botako dute asteburu honetan Leitzako zinean. Honekin hasi eta, ostiral gau eta igandero, neguan, pelikulak botako dituzte. Lokala txukundu eta berogailu ederra ezarrita dago. Oraingoan eta aurrerantzean ere, begiratu pelikulak TTAPI-TTAPAREN agendan.

□ **Soldaduskarako zozketan**... aurtengoan, 14 gazte sortean dituzte eta biri (Bixente eta Joxe Martin Azkarate bizkiei) Ceutara joatea tokatu zaie. Luis Nabaskues-i Melilla, Mikel Zabaleta Legarrari marina, eta gainerakoei hemen hurbilean.

□ **Leitza** eta Aresoko jubilatuek ebazkaria izanende igande honetan, eta izenak emateko, Jubilatuen Etxean edo 510393/510144 telefonoetan.

□ **"Balestean"**, Era-

soten, zabaldu asmo duten harrobi berria zeresan ugari sortzen ari da. 2.500 Tonelada harri egunean ateratzeko planak omen daude.

□ **Taxi lizentzia** bat libre dagoelako, eskaerak egin ahal izateko oharra zabaldu du Udalak (eta ez dakit epea bukatuxea ez den egonen, hau atera orduko).


□ **Sutarako egurra** nahi duenak ere mugitu beharko du, egur loterik markatzerik nahi badu. Eta horren truke, egun bat egin beharko da auzolanean.

□ **Azindak** zentsatzeko azken egunak: zaldi, behor, behi, ardi, ahuntz eta erle oholtzen berri eman behar da Udaletxean, gero dirulaguntzak eskatzerik nahi bada, eta zerga ordainketak egiteko.

□ **Naparroako** Kanta txapelketaren lehen kanporaketa azaroaren 30ean, Leitzeko zinean, 5,30etan.



Leitzeko "Izarra" bikotea (Antonio eta J.J., akordeoilaria)



Artzai eta zaldunak: azindak zentsatzeko azken eguna

ANTTON

Gazte Asanbladak lehen pausoak eman ditu

Rock emanaldia izango da Abenduaren 7an, Kanka, Kearrak eta Pikutara taldeekin

ESTEBAN AROZENA

Helduen artean askotan kritikatu ohi izan da herriko gazteen pasibitatea eta pasotismoa, ordu libre guztiak plaza inguruan eserita igaro zituztela esanaz. Dirudienez, kasu guztietan behintzat ez da horrela gertatzen, eta azken aste hauetan biltzen diren 20-30 neska-mutilen asmoak entzundakoan ziurtatu daiteke zerbait aldatuko dela epe motzean, zaharragoek antolatutako ekintzen zai egon gabe inizatiba hartzeko asmoa bait du Gazte Asanblada izenarekin osatu den talde honek.

Lehen ekintza bezala, rock emanaldia antolatuko dute abenduaren 7an, Kan-



KARMELE

Kanka taldeak parte hartuko du abenduaren 7ko rock emanaldian

ka, Kearrak eta Pikutara taldeekin. Hortarako, dagoeneko harremanetan jarri dira tabernari, Udala eta gainerako herriko erakundeekin, dirulaguntza lortzeko itxaropenez. Gazte hauek esan zigutenez, era

askotako ekintzak martxan jartzeko asmoak badituzte: berbenak, bertsolari eta trikitilari gazteen emanaldiak etabar...

Bertso astea

Azaroaren 30ean San Andres eguna denez eta-

gure herriko eskolek Andres Narbarte "Xalto"ren izena daramatenez, hurreri zuzendutako lau eguneko bertso astea antolatu dute irakasleek.

Hilaren 25an, astelehenean, bertso lanetan ariko dira eskolaurrak; asteartean bertsolaritzaren historiari buruzko hitzaldia eskeiniko du Lontxo Aburuzak; asteazkenean, Egaña eta Peñagarikano izanen ditugu gure artean. Eta azkenik ostegunean, "Emakumea eta bertsolaritz" gaia aztertuko da, Maddalen Lujanbio eta Estitxu Arozena bertsolari gazteak parte hartuko dutelarik egun osoan zehar eratuko diren ekintzetan.

EZKURRA

Lapurreta, SantaKruz ermitan

Teilatuko argizulotik sartu ziren

ANTTON ERKIZIA

Ezcurrarako bide bazterrean dagoen Santa Cruz ermitan lapurrak ibili dire, uste denez, teilatuko argizulotik sartuz. Rosario Gorostiaga, ermita hori zaintzen aritzen denak kontatu digunez, ermitako argia berretzera joan zenean ohartu zen norbait ibili zela, loreak eta lurtean ikusi zituenean. Gauza franko

ebatsi zuten lapurrek: Sei kandelabro eder, bere kaskilloekin eta erdiko gurutze bat ere, bandeja polita bat, txintzarria, eta alda-rean egoten ziren bi bukaro edo lore hontzi haundi.

Ebatsitakoaren balorea dirutan igarritzerik ez dago. Bai, aman dituzten puskak aintzinekoak zirela eta bere balorea zutela, eta balore haundia sentimentu mailan.



SantaKruz ermita aurrez-aurre, bide bazterrean.

ANTTON

Hameka solasbide kontrabandoa dela eta

Bertzalde, Udalak Merkatu-zelai erosiko du 32 milioitan camping-a egiteko

JOSEBA I.

Kontrabandoak badu arrakastarik Baztan aldean. Auniztan entzunak ditugu lehengo iskanbila zaharrak, eta oraindik ere entzuten ditugu maiz, gaurkoak kontuak ordian, isildu egiten dira... ondokoendako nonbait! Dena den, azken aste hauetan kontrabandoak eman du solasbiderik. Elealdi guziak horrekin hasi eta hortan akitzen ziren. Hiru guardia zibil detentatuak izan dire Urdazubi aldean, eta hoietariko bati errudun delako susmoa hartu omen diote. Arizkandar bat ere atxilotu dute eta iturri ofizialetatik aditzera eman dutenez, kartzelan bere burua zauritu egin omen du. Honen ondorioa, gusto guzitako zurrumurruak zabaltzea izan da. Telenavarratik erran zuten, kaboari egindako telefono pintxazo batek haizatu zuen guziaren arrastoa.

Elkarte berria Berroetan

Hegoalde izeneko elkarte berria zabaldu zuten azaroaren 10ean. Elkartek



Ikatzateako Baztandarra Kooperatiba 800m² haundituko dute

60 bazkide ditu eta adinekoetan denak gizonezkoak badira ere, gazteen artean badago denetarik. Inaugurazio bazkarian 110 lagun bildu ziren, bertsolariak (Murua, Telleria eta Eguzkitze), Jon Bergaretxe abeslaria eta Irungo trikitilarien laguntzarekin. Hemendik aintzinerat, Berroetak badu biltokirik.

Markotegi Lekarotzen

Nafarroako Gobernua-ren Hezkuntza sailburua Lekarozko Institutokoekin bildu zen azaroaren 13an. Irakaslegoaren inguruko arazoak (etika, erligio eta ingeles irakasleak falta), garraioen garestitzea eta

barrez aritu ziren.

Merkatuzelai camping-erako erosi

Merkatu-zelai 32 milioitan erostea onartu da eta Seminario Serafikoa ere erosiko omen du udalak hotel-alberge bat, minigolf eta tenis-pistak egokitzeko. Azken hoau, 250 milioi kostako da eta guzia turismo plangintza baten banean kokatuta dago. Bertzalde, bertze herrietako zenbait partikular kexu omen daude dena Elizondon zentratzeagatik.

Baztandarra kooperatiba

Instalazioen haunditzea dela eta, Jabier Urrutia,

kooperatibako gerentearekin solasaldi bat izan dugu.

Zenbat sozio zarete? 340 inguru.

Urtean zenbat kilo saltzen dituzue eta zein zerbitzu eskeintzen? 10 milioi kilo eta pentsuaz aparte, fito-sanitarioak, haziak, ferreteria eta albaitaritzako produktuak. Guzi honek, urtean, 480 milioi pezetatiko mugimendua sortzen du.

Zergatik obra? Orain instalazioak 1.050 m² ditu eta bertze 800m² gehiagotara zabalduko da. Obra egitearen erabakia duela 2 urte hartu bazen ere, gaur ere justifikatuta dago, batez ere prezioak ikusita. Bertzalde, ferreteria kontua hobetu nahi dugu eta seguruekin ere sartu. Obra hauek 32 milioi balioko dute eta Nafarroako Gobernutik interes bajuko prestamoa eman digute. Europako Lider programan ere sartuak gaude eta behar bada laguntzaren bat etorriko zaigu. Nolanahi ere, nagusiki, kontsumitzaile modura pentsatua dago kooperatiba, ardi esnerik biltzen bada ere.

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan AMAIUR Tfnoa: 45 30 60

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939 ELIZONDO

Udazkeneko moda, opariak, telak

Gero eta ikusmin gehiago lezeen inguruan

Barrikada eta Akelarre taldea egon dira bideoa grabatzen eta argazkiak ateratzen

MARGARI eta KORO

Nabaritzen da urtetik urtera gero eta jende gehiago etortzen dela gure lezeak ikusterat, nahiz eta ez izan munduan diren lezerik politenak (batzuk diote ez direla ezta "lezeak" ere), beren historia daukate, eta hortxe dago preziskituz guziaren kokka.

Bainan iduri du azkeneko denbora hauetan musika taldeen alosiak direla: gan den udaberrian "Ba-

rrikada" taldekoak izandu ziren lezean beren bideoa grabatzen, eta gan den astean "Akelarre" taldekoak argazkiak ateratzen beren azkeneko diskoko azalerako. Disko hunek «Akeraldian» izena du eta abenduko hilabeteetan aterako da merkaturat.

Etxeak apaintzen...

Gauza batek bertzea eskatzen du, eta seguraski hori pentsatzen dute hemengo etxeko-andreak, karririk antolatu dituzte-



Ikusmin handia sortzen dute lezeek

ARTXIBOA

nean jende aunitz bere etxea apaintzen eta xuri-

tzen hasi baita, dena araberan gelditzeko.

ZUNZARREN Gestoria

↔ Allianz Ras Aseguruak

↔ Bidai Agentzia

Tfnoa: 45 22 93
Amaiur Gaztelua 2
31700 ELIZONDO

ERRATZU OKINDEGIA

zure eguneroko ogia
453168 - ERRATZU

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE

Esquisaroi jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO



«ZALDUBI» SUKALDE MOBLEAK

Altzari fabrikazioa eta muntaia

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 45 20 77
IRURITA - BAZTAN

Etxetik mugitu gabe ardoa erosi nahi baduzu

- Botilatu eta botilatu gabea
- Markako ardoa...

deitu 45 32 66 Tfnoa.
AZPILKUETA



Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure koloretako argazkiak ORDU BATEZ ERREBELATUAK ditugu

FZ FOTO ZALDUA

Argazkiak, Bideoa, Markoak

- Instalakuntza berriekin,
- roiloen errebelatzea "ordu bat" baino gutiagoan egiteko aukera, «Fuji» kalitatearekin

Elizondo Tf: 58 04 91
Doneztebe Tf: 45 03 64

URDAZUBI

Gazteen besta burutu zen Indiano-Baitan

ALIZIA OLAIZOLA

Azaroaren 2an herriko gazteek ospatu zuten beren besta, arratseko 8,30etan futbito partido batekin hasiz; gazteenak zaharrenen kontra jokatuz. Partidu hau zaharrenek irabazi zuten eta bideoan grabatua gelditu zen.

Bukatu zenean, jokalariek bizkortzeko Indiano Baitarat aperitifa hartzerat joan ziren. Hamar terdiak aldera hasi ziren afaltzen, guztira 60 bat gazte elkarretaratuz. Jaten hasi zirenean orduantxe ailegatu ziren 6 gazte, Angeltxo, Pello eta hauen lagunak, baino berantago ailegaturik ere Juan Marik laister giro ederra jarri zuen mahaian afaltzeko denboran eta biziki animatuak zirenean gazteak, hasi zen dantzaldia Modestorekin goizeko 5ak arte eta horrela bukatu zen geure besta ttiki hori.



Herriko gazteak piztura anitzekin afaltzen

Ainhoako dantza ikastaroa

Atsulai Elkarteak konpondurik, iaz bezala, azaroaren 9an dantza klaseei hasiera eman zitzaion Ainhoan, Zugarramurdiko eta Urdazubiko 30 haur joanez larunbat atsaldetan

3,30etatik 6etara. Zugarramurdiko autobusean joaten dire eta ordu t'erdiz euskal dantzak ikasiz ibiltzen dire eta bertze ordu t'erdiz kantatzen.

Ia 100 urte

Klara Iribarren Galainena, 98 urterekin, adin

haundia duen bertze andre xahar bat dugu herrian. Azpilkuetan sortu zen eta Urdazubin bizi da Tontxeneko etxean, Iribereko auzoan, Franziska bezala. Biak adin berekoak dira, baina Klarak, hilabete batzuz gehiago ditu.

Aditu Baten Ziurtasuna

LAGUN AROn honako hauetan gara adituak:

- Industri Aseguru Konbinatuan
- Bizitza Aseguruetan
- Eraikuntzako Arrisku Orotariko Aseguruan
- Etxe Aseguru Integralean
- Komertzio Aseguru Integralean

LAGUN ARO ASEGURUAK. Konpainia on baten balioa.



Carlos III.a Etorbidea, 14
Tlfnoa.: 22 56 66 Fax: 22 10 49
31002 IRUÑA-PAMPLONA

Ostatua, San Juan z/g
Tlfnoa.: 61 51 19
31747 SALDIAS

Juan Jose Urrutia Juanenea
(Ajentea)

EZKONTZAK


Nerea Mardaras Oregi eta **Mikel Etxegia Loiarte**, Algorta eta Goizuetakoa, Azaroaren 2an.
Luis Angel Berro eta **Ana Arribillaga Sagastibeltza**, Lerin eta Leitzakoa, Urriaren 26an.
Gabriel M^a Saralegi Arribillaga eta **M^a del Rosario Saenz Lazkano**, Leitzakoak, azaroaren 3an.
J. Ramon Elizondo Madariaga, eta **M Carmen Otxoteko**, Arantzeta eta Lesakakoa, urriaren 26an.
Marie Pierre Zapelena eta **Jean Marie Ibarburu**, Sara eta Urruñakoa.
Patxi Mitxelena eta **M^a Carmen Mariezkurrena**, Sunbilla eta Eratsungoa, azaroaren 9an.
J. Ramon Berrondo Aierza eta **M Jose Gamio Alzuart**, Doneztebe eta Arraiozkoa urriaren 5ean.
Eugenio Mutuberria Jorajuria eta **M^a Cruz Aiestaran**, Oieregi eta Lesakakoa, urriaren 18an..
Joaquin Barrenetxe eta **Elena Almandoz Mendiburu**, Berroeta eta Iruñeakoa urriaren 19an.
Carmelo Rekarte eta **M^a Angeles Bengoetxea**, Sunbilla eta Errenterikoa, azaroaren 2an.
Enrike Barruetos Matos eta **M^a Carmen Mitxelena Peña**, Santander eta Berakoa, urriaren 18an.

JAIOTZAK

Naiara Ollo Eskudero, Goizuetan, Urriaren 9an.
Ainhoa Mitxelena Oiartzabal, Goizuetan, Urriaren 28an.
Mikel Cenoz Verdu, Urdazubin, Azaroaren 12an.
Paul Matxikote, Saran, Azaroaren 4ean.
Ander Mitxelena Tapia, Igantzín, urriaren 26an.
Gorka Ordax Inbuluzketa, Donezteben, azaroaren 4ean.
Xabier Jaurena Baleztena, Eratsunen, abuztuaren 1ean.
Aritz Petrirena Bengoetxea, Beran, irailaren 26an.
Imanol Gonzalez Martin, Beran, urriaren 27an.
Julen Latorre Goia, Beran, urriaren 30ean.
Julen Arburua Jimenez, Lekarozkoa, urriaren 27an.
Xabier Urrutia Altzuarte, Amaiurkoa, azaroaren 6an.
Maitane Etxeberria Bizente, Iruritikoa, azaroaren 7an.

HERIOTZAK

Javier Loiarte Zubiri, Goizuetan, Azaroaren 2an, 62 urte.
Gillermo Elizondo, Arantzan, Azaroaren 1ean, 79 urte.
Pascasia Mendiburu Migeltorena, Elizondon, Irailaren 21ean.
Felisa Saragueta Artola, Elizondon, Irailaren 24ean.
Jose Aldaia Otxandorena, Elizondokoa, Urriaren 3an.
Consuelo Agirre Matxiñena, Oronotzkoa, Urriaren 16ean.
Miguel Elorga Urrutia, Elizondon, Urriaren 19an.
Joaquina Saharrea Elizegi, Iruiritan, Urriaren 29an.
Josefa Errazkin Otxoteko, Lesakan, urriaren 11an, 80 urte.
Charles Aubry, Saran, 59 urte.
Jacques Gourdelier, Saran, 51 urte.
Jean Adolphe Bublavy, Saran, 61 urte.
Inaxi Unanua Erro, Igantzín, irailaren 29an, 89 urte.
Jesus Apezetxe Ariztia, Iruritan, urriaren 31ean.
Eleuterio Goñi Bereau, Elizondon, urriaren 31ean.
Vicente Etxegarai Aristizabal, Elizondon, azaroaren 3an.
Jose Fco. Vicondoa Iturralde, Elizondokoa, azaroaren 2an.



ERAKUSKETA:
 BEREAU ETXEA
 LESAKA NAFARROA
 Telf: (948) 637266

BORTZIRI

«UNSION ANAIK»

SUKALDERAKO ALTZARIAK



UNION CONTACTS LOISIRS

ZURE GIZA HARREMANETARAKO
 AGENTZIA

TFNOA: (943) 42 64 11

Okendo 2, 20004 - DONOSTIA

- ♥ Bakarrrik zaude?
- ♥ Zergatik?
- ♥ Ez duzu inor ezagutzen zurekin ezkontzeko?
- ♥ Familia bat egin nahi baduzu...
- ♦ Gure laguntzarekin nahi duzuna lortuko duzu.
- ♦ Kezkarik gabe etorri guregana edo deitu.
- ♦ UCLrekin zorientasuna lortuko duzu! Animatu!

Euskal Autonomi Elkartean eta Nafarroan intsumisio kopuruak altuak badira ere, gure eskualdean ez da gauza bera gertatzen

Joan den azaroaren 3an soldaduzkara joateko zozketa izan zen. Aurtengoa azkena izan da zerbitzu militarren lege berria dela eta.

Egun berean eta aintzineko egunetan Hego Euskal Herriko zeinbait herritan zerbitzu militarren kontrako eta intsumisioaren aldeko mintzaldi eta manifestazioak izan ziren.

Hauetan, talde antimilitaristek legea aurpegi zuriketaz eta intsumisioa isolatu eta desagertarazteko saioaz salatu zuten. Gizarte mailan objektioa eta intsumisioak duten onespeneraren seinaleztat hona hemen «*Kontzientzi Eragozpenerako Kontseilu Nazionalak*» (objetorearen eskaera bideratzen duen erakundea) emandako datuak: 1986. urtean 4.995 objetore, 1990.ean 20.857ra igo zen kopurua, 1991.eko irailaren 30ean Kontzientzi Eragozpen Kontzeilu Nazionalak 21.091 objetore berri onartu zituen.

Soldaduzkarako loteriaren emaitzak

	SORTEATUAK	Región Militar CENTRO	R.M. PIRENAICA OCCIDENTAL	Región Militar CANARIAS	Región Militar SUR - CEUTA	Región Militar SUR - MELLILLA	1ª Región AEREA	3ª Región AEREA	Zona Marítima CANTABRICO	Zona Marítima CANARIAS	Zona Marítima ESTRECHO
BAZTAN											
Baztan	37	5	22		2	1	2		2		3
Urdazubi											
Zugarramurdi	0										
BORTZIRIAK											
Arantza	6	1	2	1							2
Bera	15		6		1	1	2	2	2	1	
Etxalar	1	1									
Igantzi	0										
Lesaka	16	2	10	1	1				2		
LEITZALDEA											
Areso											
Goizueta	4		2			1			1		
Leitza	14		10		2	1	1				
MALERREKA											
Beintza											
Bertizarana	1		1								
Donamaria	3	1	1		1						
Doneztebe	8		6	1				1			
Elgorriaga											
Eratsun	0										
Ezkurra	0										
Ituren	3		1			1					1
Oitz	2	1	1								
Saldias	1		1								
Sunbilla	1					1					
Urrotz	2		2								
Zubieta	2		2								

1990.eko datuak ikusita, objetore kopuruari dagokionez, Europa mailan Estatu Espainola 2. estatua da Alemania ondotik.

Zenbaki hauek objetore "onartuei" buruzkoak dira, objetore ez onartuak edo intsumisioak kontutan hartu gabe.

Euskal Herriko talde

antimilitaristek azken urte hauetan intsumisioaren bigarren ekin dioten eragozpen legeak jarritako traba eta estutasunak gaindituarraren.

K.E.M.ek (Kontzientzi Eragozpen Mugimenduak) emandako datuak koadroan ageri dira.

Zerbitzu militarren

Intsumisoak

	NAFARROA	HEGO EUSKAL HERRIA
1989	% 1.58	% 1.58
1990	% 3.32	% 3.32
1991	% 6.40	% 6.40

INTSUMISO eta OBJETOREAK

	NAFARROA	HEGO EUSKAL HERRIA
	% 27.13	% 56.00

Ordezko zerbitzu zibilera deituak (PSS)

	NAFARROA	HEGO EUSKAL HERRIA
1991	% 4.36	% 2.45

ORDEZKO ZERBITZU ZIBILARI UKO EGIN DIOTENAK EGIN BEHARRA DUTENETIK

	NAFARROA	HEGO EUSKAL HERRIA
	% 49.44	% 43.85

gaitzespena gero eta handiagoa dela ikusirik eta soldadutza erakargarriagoa egin nahirik norberaren aukerako soldaduska edo "mili a la carta" delakoarekin datozkigu. Amu berri bat.

Defentsa Ministeritzak dioenez, 92an (urte majikoa) gazte gehienek heuren aukeratutako destinoan egin ahal izango dute. Egokitutako deialdia aldatu ahal izango da. 1992eko errenplazoan 4 deialdi izango dira, Lur eta Aire ejerzitoetan (otsaila, maiatza, abuztua eta irailan) eta sei armadan (otsaila, martxo, maiatza, ekaina, uz-

taila eta azaroan). Eta azken "goxokia", ordezko zerbitzu zibila 13 hilabetetako den bitartean, soldaduska hamabikoa izatetik bederlatzi hilabetetako izatera pasako da.

Lege honen aurkako kritikak ez dira sektore antimilitaristetatik soilik egin. Iruñean, Martinez Ingles koronel ohiak erran zuen, soldadutza hamabi hilabetetatik bederatzira pasatzeko proposamena guztiz elektoralista izan dela, ez baita inolako azterketa teknikorik egin eta teknikoki ezinezkoa dela soldaduska egiteko tokia eta era aukeratzea.

Intsumisioa gure artean

Datu falta nabarmena dago erakunde eta mugimenduetan

Objezioa eta intsumisioa ez da gure artean kontu berria. Bortzirietako udalek beraien burua intsumisotzat aldarrikatu zuten, nahiz eta gero baten bat gibelerat jo gobernadore zibilaren presioa zela eta. Orain dela bi urte edo «Bortzirietako objektore eta intsumisoak» taldeak zenbait hitzaldi eta bilera antolatu zituen intsumiso kasu baten in-

guruan, baina berehala desagertu zen arazoa nolabait "konpondu" zenean.

Eskualdeko intsumisioen datuak Euskal Herrikoekin konparatuz gero apalagoak direla errax soma daiteke. Arrazoiak aunitz izan daitezke, informazio falta, bakarrik sentitzea honelako paus bat ematean, etab...

Intsumisioari buruzko informazioa non?

Intsumisioari buruz informazio gehiago nahi izatekotan hemen dituzue

gai horretaz arduratzen diren taldeen helbideak:

Gaztedi Kontseilua

Astelehenetik ortziratera, arratsaldero 6etatik 9etara.
Zangotza Kalea 30, IRUÑEA. Tfnoa: 234819.

KEM (Kontzientzi Eragozpen Mugimendua)

Asteartero, arratseko 8etatik 10etara.
Nabarrerria 6, 1. Iruñea Tfnoa: 210530

Kakitzat

Ortzegunero 7etatik 9etara.
Meson de la Nabarrerria ostatua, Nabarrerria kalea, Iruñea.

MODESTO SANSIÑENA

Soldaduskaren aintzinean, bide ezberdinak aukeratzen dituzte gaur eguneko gazteek

Hego Euskal Herrian, gazteen %46ak uko egiten dio eta Nafarroan %35ak

Bizitzaren urte bat galtzea, estudioak eta lana derrigorrean utzi beharra edo «gizona» egiteko ezinbesteko pausua. Nork ez ote du aditu horrelako gauzarik, soldaduskaren inguruan hitzegiterakoan. Duela urte batzuk arte inork ez zuen pentsatzen soldaduskari uko egin zitezenik ere, baina gaur egun, gero eta gehiago dira bide hau segitzen duten gazteak. Datuak ematekotan, Hego Euskal Herriko gazteen % 46ak eta Nafarroako %35ak uko egingen dio soldaduskari. Hala ere, intsumisioak eta objezioak ez du horrelako indarririk gure eskualdean, nonbait hirigunetan ematen baitira gehien bat fenomeno hauek. Arazo hau, gazteak bertan nola ikusten duten jakiteko beraiengana hurbildu gara, beraien iritziak ezagutu asmoz. Agian, mutil gazteentzat baliagarria suertatuko da.

AITOR AROZENA



KARMELE

Objetorea:

Soldaduskara joan nahi ez duena eta Kontzientzia Eragozpen Legeak ezartzen duen Ordezko Zerbitzu Soziala egiteko prest dagoena. Soldaduskan betetzen diren 12 hilabeten ordez, hainbat erakundee-tan (Gurutze Gorria, DYA, etab...) 18 hilabete pasatzen dituzte zerbitzu sozialak egiten.

Nor den nor...


Intsumisioa:

Soldaduskari eta Ordezko Zerbitzu Sozialari uko egiten dio. Ez du onartzen, ez bat ez bestea, bigarrenak lehenengoa lejitimatzeko duela argudiatuz. Kontzientzia Eragozpen Legearen aurka dago, errepresibotzat hartzen bait du. Soldaduskarako deia jaso-

tzen duenean ez da joaten, baina epaile militarri, ez joatearen arrazoiak idatzi batean agertzen dio. Legez kanpo dagoenez, auzitegi militarrek epaitu beharko luke, baina eztabaidatzen ari den lege berriaren arabera, epaitegi zibilak epaituko luke.

Ordezko Zerbitzu sozialari uko egiten dion objetorea:

Legez, objetore bezala onartua dago, objezio legez ezartzen dituen baldintzak bete dituelako, baina Ordezko Zerbitzu Soziala egitera deitzen dutenean ez da joaten, aipatu zerbitzuari uko eginez. Legez kanpo, eta auzitegi militarretatik kanpo gelditzen da.



Koldo Erkizia, 18 urtetako lesakarra. Objetorea.

«Jende asko eta leku gutti daude zerbitzu sustitutorioa egiteko»

Zein izan da zuk jarraitu duzun prozesua objetore izateko?

Kajan sartzeko Udaltxean betetzen den orrian objetorea zarela jartzen duzu. Objetore bezala errekonozitzeko inpresoa betetzen da, bertan bakoitzaren datuetatik aparte, "servicio sustitutorio" zein sektoretan egin nahi duzun jartzen da (Osasunbidean, ingurugiroan, etab...). Gero orri hau Gobernu zi-

bil edo Militarrean aurkezten duzu, bertan kuñoa emateko. Ondoren, 6 hilabeteren ondoren ematen dizute erantzuna; baiezkoa bada, objetorea zera dagoeneko. Ondoren, PSS non egin behar duzun erranen dizute, hala ere jende asko dagoenez eta leku gutxi zerbitzu hau betetzeko, lista baten sartzen zaituzte zure txanda iritsi arte. PSSari ere intsumisioa egiten ahal zera.



Fernando Oiarzun, 25 urtetako leitzarra eta objetore amnistiata.


«Inork ez dauka eskubiderik ni edo hori edo hura bortxan etxetik inora eramateko»

Zergatik objetore?

Arrazoi bat baino gehiago azalduko dizkiat. Bakoitza bere buruaren jabe da eta inor ez dauka inongo eskubiderik ni edo hori edo hura bortxan etxetik inora eramateko, hori bait duk soldaduska, sekuestro legala. Gazteen bizia zapuzten ditek, ikasketak edo lana edo bizian egiten ari haizena, moztu egiten ditek.

Objetore izateko erabakia hartu eta gero, Iruñeako

Navarrerria kalean dagoen Kakitzat eta MOC taldekoengana jo, han egin zidaten papera sinatu eta Ministeritzara bidali. Gure garaian, adierazi genuen ez genuela ez soldaduska, ez PSSa egingo eta ez genuela hori inolaz ere zergatik justifikatu behar (konstituzioak askatasun ideologikoa bermatzen du). Hala ere, 20.000 bat gazte gineenez orduan (87ko ekainan) legaltzat hartu eta zaharrenei amnistiatu gintuzten



Patxi Petrirena, 28 urteko sunbildarra. 1989ko Urtarrilan inkorporatu beharra eta intsumisio egingakoa.

«Finkatu eta gorantz egin du intsumisioak azken urteotan»

Zein izan du zure prozesua eta ze bilakaera jarraitu du intsumisioak azken urteetan?

Guk, soldaduskara joateko deitu zigutenean epailearen aintzinean aurkezteko erabakia gure borondatez hartu genuen, horrela adierazten bait duzu jarri hori konzienteki hartu duzula eta soldaduskari -baita ordeko zerbitzuari ere- uko egiten diozula. Oraingoz, "libertad

provisional" da nere egoera legala. Beraz, legez, noizbait epaiketa etorriko zaigu eta bitartean, noizbehinka norbait atxilotu edo "busqueda y captura" aginduak zabaltzen dituzte (normalean, betetzen ez direnak), baina hagitz puntualki.

Bertzalde, erran behar da dudarik gabe finkatu eta gorantz egin duela intsumisioak azken urteotan, batez ere Euskalerrian.

Doneztebeko pilota eskolak, Malerreka aldeko 65 pilotari inguru biltzen ditu

Hainbat txapelketetan parte hartzen ari dira aurtengoan



Aurtengoan, zazpi eta hogeitamar urte bitarteko 60-65 bat pilotari ari dira eskolan

KARMELE

1987an hasi zen Doneztebeko pilota eskola bere lehendabiziko pausuak ematen, Mitxel Ibarrola, Juanjo Urrutia eta Martin Beginoren lanei esker.

Lehen urte hartan 30 pilotari gazterekin hasi baziren ere, 1988an 50 kirolari inguru bildu ziren eskolan eta aurtengoan, zazpi eta hogeitamar urte bitarteko 60-65 bat pilotarik entrenatzen dute.

Mallerreka osoko pilo-

tariak bertan ari badira, herririk haundiena Doneztebe denez bertakoak dira %50a gutti gotti behiti.

Txapelketa aunitzetan parte hartuak

Eguneroko lana garrantzitsuena baldin bada ere, lortutako garaipenak ere ezin dira atzendu. Horrela, lehendabiziko urtean, bikotekako Bidasoako txapelketa lortu zuten alebin mailan Deskargak eta Retegik. 1988an berriz,

afizionatu mailan, Neguko txapelketa lortu zuten Bertiz eta Urrutiak osatutako bikoteak.

Aurtengoan berriz, bi pilotarik hartu dute parte Tafallako txapelketan: Leizak finalera iristea lortu zuen, nahiz eta gero galdu eta Apeztegia berriz, semifinaletan kanporatu zuten. Orain, Baztango txapelketan eta Josexo Ezkurra II. memorialean parte hartzen ari dira.

Otsaila aldera hasiko

den Bidasoako txapelketan ere izena eman dute.

Zuzendaritza berria

Lan hauek nolabait bideratzeko zuzendaritza batzordearen lana guztiz beharrezkoa da. Gauregun zuzendaritza osatzen dutenak, Ignacio Apeztegia, Javier Almandoz, Javier Perez, Jesus Mangado, Maria Jose Larraioz, Juanjo Urrutia eta Martin Begino dira, nahiz eta gurasoen eta herritarren laguntza beharrezkoa izan.

Eskubaloia



Baztango emakumezkoen senior taldea

KARMELE



Baztango emakumezkoen kadete taldeetarikoa

AITOR



Baztango emakumezkoen infantil taldeetarikoa

AITOR

Argazkietan ageri denez, ez dute nolana hiko "harrobia" Baztanen emakumezkoen eskubaloia dagokionez. Aurrekoan jubenilak agertzen baziren, oraingoan seniorrak, kadeteak eta infantilak ikusgai. Eta gehiago ere badaude.



AITOR

Baztango Rugby taldeak berriki hasi du denboraldia


2 partiduetatik, bat irabazi, bertzea galdu

Duela pare bat aste eman zioten Baztan Rugby taldeko mutilek 1991-92 denboraldiari dagokion ihardunaldiari Nafarroako ligan.

Lehendabiziko partiduan ezin izan zuten irabazi, aintzinean Iruña

taldea bait zuten, maila honetako indartsuenetarikoa bat. Hala ere, bigarren partiduan (nahiz eta jokalaririk garrantzitsuak faltatu), joko ederra erakutsiz izugarriko jipoia eman zioten La Unica talde iruindarrari, 22 eta 0 irabaziz.

ABENDUAREN 6, 7 eta 8an
MENU BEREZIAK



DONAMARIATIKO BENTA

Jatetxea

Tfnoa: 450925 / 450708 - DONAMARIA

Senda belarrak **Berbena belarra**

Verbena Officinalis L.

Deskripzioa

Berbena belarra erabilia izan da aintzinako kultura aunitzetan (erromanoak, zeltak, germanoak, etab.) sendabelar bezala. Bere sustraiak bizirik irauten dute neguan lur azpian eta pufa batzu botatzen ditu metro erdikoak edo, hagitz estuak eta gihartsuak eta bere zurtenak laukiak dira. Hostoak, estuak eta zatituak ditu eta zurtenaren gailurrean lore urdin eta more ttipi batzu ematen ditu. Hagitz ugaria da gure herrietan eta udaberrian eta udan bere hosto eta loreak jasotzen dira. (Biltzerakoan, zainak errespetatu behar dira).



San Juan gauean jasotzen zen belarra «Odol motelak» bizkortu eta berotzeko erabiltzen omen zen

Propietateak

Digestiboa, depurati-
boa, lasaigarria, infekzio
eta haziduraren kontrakoa

eta zauriak sandatzeko
aproposa.

Erabilera

Barnekoa: Infusio be-
zala bi zopa kuxare haun-
di egunean hiru aldiz otor-
du nagusien aintzinatik)
hartuta aproposa da diges-
tioak sor ditzakeen nahi-
gabe nerbioak baretze-
ko. Burukominak arintze-
ko eta gibela eta giltzuru-
nari bere lana burutzen la-
guntzeko erabiltzen da.
Zinturreko mina kentze-
ko, berbena belarrak ego-
sita sortzen duen ura gar-
garak eginda hartu behar
da.

Kanpokoa: Infekzio,
pasma eta zornia sortzen
duten gaitzetan, mota
guzietako enplasto eta ka-

taplasmak erabiltzen dira.
Freskoa baldin bada, hobe.

Norberak aisa presta
dezakeen pomada hagitz
ona larruaren zauri, erre eta
pasmoak sendatzeko.

Udaberrian inguruko
berbena belarrak eta int-
susa lorak jaso, ongi txiki-
tu eta erdibana jarri, garia-
ren haziaren germenaren
oliotan beratzen eduki on-
tzi estali batetan hamabor-
tz egunez. Gero, trapuzko
irazki batetik pasa eta ur-
tutako argizaria poliki-
poliki bota olio horri, po-
mada erabiltzeko prest
gelditzen delarik. Ontzi itxi
eta leku hotzean gorde be-
har da.

ALBERTO ITURBE



INFORMAZIOA:

Ezkalo Jauna
Tfnoa: 45 15 18
Doneztebe

ITUREN	• 100 m ² ko pisa, eguzkitsua. Gaztain egurrez egina.
ELGORRIAGA	• Piso mobleztatua, kalefakzioarekin alokatzen dut.
IRURITA	• 120 m ² ko pisa kalefakzioarekin.
ARRAIOTZ	• Pisoa egoera ezin hobean.
DONEZTEBE	• Pisoa sukaldea eta lurreko suarekin. 7.500.000.
ARANTZA	• 90 m ² ko pisa, oraindik estreinatu gabea, salgai.
DONAMARIA	• 5.000 m ² ko lur eremua, intxaurrondoekin salgai.
DONEZTEBE	• 150 m ² ko pisa alokatzen da. Hutsa eta kalefakzioarekin.
LEITZA	• Harrizko bi etxalde saltzen dira. (Zahar itxurakoak).
MENDIGORRIA	• 3.400 m ² ko eremua, frutondo, iturri eta bordarekin.

Baztan, Bidasoa, Malerreka eskualdekobaserriak, bordak, eremuak, pisaok, bajeak, etxeak, ostatuak eta errotak erosten ditugu. Ongi ordaintzen dugu.

Astrologia

Bi bertsolariren karta astralak



Hona hemen bertsotan aritzen diren bi gizonen kartak aztergai. Tebistan sobera agertzen ez bada ere, bere burua bertsolariz daukanak behar izanen ditu ezaugarri berezi batzuk.

Bertsolaritza

Arte honek eskatzen duen lehen gauza lotsa eta eridikuloaren beldurra gainditzea da eta jendearen aurrean agertzea, eta ondoren modurik egokien burutazioak azaltzea. Astrologoek diotenez Leo zeinua da aktore eta teatro jende gehien ematen duena –pertsonari bere buruakin konfidantza ematen diolako–. Kantua eta arteak begiratzeko Venus planeta da garrantzitsua. Airezko zeinuak eta etxeak ere kontutan hartu behar dira, erlazio eta komunikazioarekin zerikusirik bait dute.

Manolo Arozena

Bera da aurtengo Nafarroako txapelduna. Lehen



Manolo Arozena eta Rikardo Fdez. de Durana bertsolariren karta astralak

aipatutako baldintza “klasikoak” betetzen ditu. Leo du aszendentea eta Venus Neptunorekin dago –sensibilitatea–, Libra zeinuan, 3. etxean –airea bi aldiz–. Virgoko Eguzki-Saturno konjuntzioak ematen dio seriotasun hori eta ez dio uzten pauso bat ematea erabat ziur egon arte.

Txapela irabazi zue-nean, ilargi “progresatua” MCen zegoen. 1994-5 ur-

tean berriro aukera ona heldu zaio.

Rikardo Gonzalez de Durana

Rikardo Leo da, baina airezko zeinutan ez du planeta bakar bat ere. Alegia, baditu gogorazio eta espresio origiltasunez beteak, baina horiek adierazteko berezko errezitasuna falta zaio. Karentzi bat somatzen duelako kon-

pentsatu nahi du eta bertsotan aritzen da, esfuertzu handi bat eginez. Karta honetan planeta guztiak eskuineko aldean daude, bizitzeko besteen beharra sortzen dute, jendearekin harremanik gabe ezin da bizi. Honek dakarren arriskua besteen desioei lehentasuna ematea da, norberarenak atzera utziz.

FERMIN ALTZUGUREN

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanazue Iruritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

Zure publizitatea
inguru honetako
4.700 etxetara
zabaldu nahi
baduzu, deitu
631188 Telefonora

ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA

MERKATU TTIKIA

Etxebizitzak

• **Beran** etxebizitza salgai, 100m² gehi 22m² balkoi, 9 milioitan. 630522

• **Beran** alkilatzekeo pisa behar da. Norbaitek baldin badu dei dezala 630072 tfnora. Ana.

• **Oieregin** pisu zabala eta primerako materialekin egina, berria. Garajearekin. Tfnoa: 452048.

Lana

• **Iruñean** arratsaldez lan egingo nuke, haurrak, etxea, garbiketak, etab. Tfnoa: 130200 (Amaia).

Denetarik

• **Ekipoak** alokatzen dira udalenzat, bertsolarientzat, mitinetarako, etabar. Laia musika dendara deitu. 631059.

• **Saski Zar** ostatua traspasoan edo salgai. Tfnoa: 63 1188.

• **Lesakan**, lokal polita, berria, alaia eta herriaren erdian traspasatzen da. 35 m² ditu, bi partetan, prezio interesgarrian. Zure ilusio polit hori errealitate bihurtu ezazu, etorkizuna-

ri begira. Deitu 637410ra.

• **Labadora** bat behar dugu, bigarren eskukoa. Tfnoa: 637796.

• **Altzatetik** Berarako bidean gizona esku-muturreko erlojuagalduda. Norbaitek aurkitu baldin badu deitu mesedez 630216 tfnora. Sarituko da.

Salerosketak

• **Mando** merkea, lanerako balio duena, salgai Saldiasen. Tfnoa: 615016.

• **R-6** bat (NA-3620-F) salgai. Tfnoa: 450477.

• **Belarra** igotzeko makina elektrikoa eta ordeñadora salgai. 615070.

• **Elizondotik** Urdazubira, 15.000 bat m²ko lur saila erosiko nuke. 452048.

• **Akordeioa** salgai. Melodia, 120 bajokoa. Tfnoa: 453060.

• **Akordeioa** salgai, Zero Sette marka, 120 bajo ditu erreduzitua. Oso berria da. 510575 (Milagros).

• **Yamaha** ziklotorra salgai. Zozketan tokatua eta batere ibiltzekoa. 105.000 pza. Negoziagarriak. Tfnoa: 58 11 22 (Javier).

• **Kitarra** bat etxeko zokoren batetan ahaztuta baldin baduzu eta ez baduzu behar deitu ieza dazdu eta egonen gara. Tfnoa: 450580 (Joxemari).

• **Kitarra Anpli** bat salgai. Peavy Programax 10 Digital markakoa (150 W). Tfnoa: 637794 (Mazi).

• **Mendiko bizikleta** salgai. Prezio onean eta berria. Tfnoa: 514217.

• **2 urteko ahari** adaskiri horia eta itxura ederrekoa salduko nuke. Deitu 514229 tfnora.

• **Borsini** akordeioa salgai. Botoiekin, 3 errejistro eta 120 baxu, erreduzitua. Bi urte ditu. Interesatuak deitu 630649ra.

Harremanak

• **Leitzako** Izaskun Arrezubieta: Zorionak zure urtebetetzean. Horrelaxe segi. I. S.

• **Aralarren** lanean aritzen den Joxe Mari Zabalari zorionak bidali nahi dizkiogu Leitzetik sendi guztiak.

• **Beartzungo** Blanka-arentzat: Zorionak zure lagunentzatez. Berandu den

arren, pentsatzen dugu merezi duzula, hain lagun ona izateagatik.

• **Doneztebeko** Mikel Gastesi: Zure ilea arras polita da eta zutaz maitemindurik nago. Bi musu zure ezpainenetan. Paskasia.

• **Arantzako** kaiku-ilearentzat: Ikusi nahiko nituzke Algeriako kaikuak, zeren Arantzakoak itxura txarra dute. Eta badituste...

• **Legasako** Eider Zubillagarentzat. Zorionak zure urtebetetzeagatik.

• **Oitzko** Mariarentzat: zorionak bere seme-alabak, bilobak eta senarra Gabinoren partez. Segi beti umore onarekin.

• **Zubietako** Mikelen-entzat (Frantzia mendian lanean ari dena): Zorionak bere gurasoan, anai-arreba, koinata, iloba eta nekaren partez. Muxu bero bat.

• **Urrotzko** Martintxo Zarentzat: barkatzea espero dut. Nire haserreak maite zaitudalako dira. Zorionak zure egunean (Azaroak 11). Urte askotarako elkarrekin. A.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA


HERRIA

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188



CRISTALERIA VELATE



Hilabete honetako eskeintza

% 20aren deskuentoa
bidrieretan

DATORREN HILABETEAN KRISTAL ISOLATZAILETAN ESKEINTZA



- ✓ Eraikuntzak kristalezatzea
- ✓ Instalazio komertzialak
- ✓ Climalit beira edo kristal isolatzailea (aislantea)
- ✓ Kristalera artistikoak
- ✓ Mural ispiluak

- ✓ Grabatuak beira eta marmol gainean
- ✓ Etxe barneko dekorazioa
- ✓ Bainurako mobleak
- ✓ Ate korrederodun armarioak
- ✓ Ate korrederak ispiluarekin

TAILERRAK: Sakanpea karrika, 18. nabea - ANTZOAIN. Tfnoa: 13 02 41

DELEGAZIOAK:

ELIZONDO

Pedro Axular karrika, 1
Tfnoa: 58 08 25

IRUÑEA

Ermitagaina karrika 27
Tfnoa: 17 72 78

DONEZTEBE

Segundo Izpizua 28
Tfnoa: (943) 27 02 51

ALMACENES ETXANIZ, S.A.



L e s a k a k o Iturria anaiak



ZURE BAINUA ALDATZEA PENTSATZEN BADUZU ZATOZ GUREGANA:

MOBLEAK, ISPILUAK, GRIFERIAK, MANPARAK ETA BEHAR DITUZUN OSAGARRI GUZIAK DITUZU

Juan Arana, 3 - Tfnoa: (943) 61 17 67

IRUN